

Bigarren Hezkuntza. 1,2

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea / Ondoren 1-3

IKASGAIA	IKASGAI ERLAZIONATUAK	GAI EKOSOZIALAK	INGURUMEN-POLITIKAK
Natur Zientziak	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Balio Zibikoak,</li> <li>➤ Geografia eta Historia,</li> <li>➤ Teknologiako eta Digitalizazioko Haslapenak</li> <li>➤ Heziketa Fisikoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ekodendentzia</li> <li>➤ Zibilizazio krisia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ura</li> <li>➤ Hondakinak</li> <li>➤ Kontsumoa</li> <li>➤ Biodibertsitatea</li> <li>➤ Ohitura jasangarriak</li> <li>➤ Lurzoria</li> <li>➤ Aldaketa klimatikoa</li> </ul>



## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Trianoko Mendietako burdin meategiak modu intentsiboan ustiatu ziren, gure ingurunea errotik eraldatuz. Ekonomia jasangaitz horren ondorioz, gizakiaren kontzientzia faltak eta gutziak bultzatuta, krisi klimatiko larri bati egin behar diogu aurre orain. Horrela, esperientzia didaktiko honen bidez paisaian eragina duten eta klima-aldaketa bultzatzen duten gizakiaren ekintzetan sakonduko dugu. Zehazki, ekintza horietako batek iraganean izandako ondorioak ikusiko ditugu: burdinaren meatarritza. Horrek guztiak ikasleak eta irakasleak kontzientziatzeko balioko du, klima-aldaketa ez bizkortzeko egin ditzakegun eguneroko ekintzen inguruan. Garrantzitsua da gure aletxoa ematea, planetaren oraina hobetzeko eta etorkizun bat ziurtatzeko. Horregatik, unitate didaktiko honek ikasleen eta irakasleen inplikazio handia eskatzen du.



## Abiapuntua

*Aldakor izeneko gaizkile batek Zugaztietako meategi zaharrak ireki nahi ditu berriro, 1993an Gallartako azken ustiatzea itxi ondoren. Bere helburua azken belaunaldiko gailu teknologiko bat martxan jartzea da, gizakiok eragin dugun klima-aldaketa bizkortzeko, hura bera aberazteko eta planetako biodibertsitate guztia suntsitzeko. Baina arazo bat dago: gailu hori funtzionatu ahal izateko, burdina behar du lehengai gisa, Meatzaldean dagoen burdina. Ekoetxea Meatzaldetik zuen laguntza eskatzen dizuegu, Aldakor gaiztoak eta lehertxus osatutako armadak burdin meategiak berriro ireki eta ingurumena inolako kontrolik gabe suntsitzen jarrai ez dezaten. Horretarako, aurrea hartu behar diogu eta haiek baino lehen lortu behar ditugu 5 elementuak... Nola? Enigmak konpontzen, frogak gainditzen... Lagunduko diguzu?*

## AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA.

- Bisita egin aurretik, ikasleek materiala jasoko dute formatu digitalean, modu ludiko batean jakin dezaten zer arazori egin behar diogun aurre eta motibazioa izan dezaten haiek konpontzen inplikatzeko.
- Bisitan zehar, taldea, proba batzuk gainditu beharko dituzte, 5 elementuak Aldakor baino lehen lortzeko; proba haiek lotuta daude meatze-ustiatzearen ondorioz paisaiak jasan zuen eraldaketa izugarriarekin eta aurre egin behar diogun krisi klimatikoarekin. Amaitzeko, ikasleek ingurumenarekiko konpromiso batzuk hartu beharko dituzte, beren eguneroko bizitzan aplikatzeko eta, horrela, klima-aldaketaren aurkako ekintzan eta borrokan inplikatzeko.
- Ondoren, ikasgelan, eskuratutako ezagutzak egiaztatzeko eta finkatzeko materiala jasoko dute; gainera, material bat prestatu beharko dute, hartutako ingurumen-konpromisoak aplikatzen direla frogatzeko.

## HELURU KOMPETENTZIALAK

- Natur ingurunea hezkuntza tresna gisa erabiltzea.
- Gizakiaren ekintzak Meatzaldeko paisaian dituen ondorioak ulertzea.
- Ekonomia-jardueren, demografiaren eta klima-aldaketaren arteko lotura ulertzea.
- Klima-aldaketaren eragina planetaren osasunarekin eta, ondorioz, izaki bizidun guztien bizi-kalitatearekin lotzea.
- Gure planeta XXI. mendeko herrialde garatuetan ingurumenerako ohikoak diren ekintza kaltegarrietatik babesteko behar den zentzu kritikoa duten pertsonak lortzea.
- Gure egunerokoan tokiko ingurunea eta ingurune globala kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak sustatzea.
- Ikastetxetik kanpoko harreman pertsonalak bultzatzea, taldeko kideen arteko elkarrikeria, tolerantzia eta errespetua sustatzeko.

## Curriculumaren zehaztapenak



## NATUR ZIENTZIAK

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK STEM KD KPSII	3 4 1, 2, 3, 4, 5 4	<b>2. Informazioa identifikatzea, eta hautatzea, plataforma teknologikoak eta askotariko baliabideak erabiliz, zientziekin lotutako galderak ebazteko.</b>	2.1 Modu egokian eta moldakorrean lan egitea baliabide tradizionalekin eta digitalekin, informazioa kontsultatzean eta edukiak sortzean, iturri fidagarrienak irizpidez hautatuz. 2.3 Eraikuntzako eta hezkidetzako elkarrekintzak ezartzea, jarduera zientifikoetan kolaborazio-lanaren berezko estrategiak erabiliz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa bultzatuz.	<b>A. Oinarrizko trebetasun zientifikoak eta proiektu zientifikoak:</b> – Gai zientifiko jakin bati erantzuteko saiakuntzak eta landa-lana, tresnak eta espazioak (laborategia, ikasgelak, ingurunea...) modu egokian erabiliz. – Prozesuen, emaitzen edo ideien komunikazioa formatu analogiko edo digitaletan. – Espazio bakoitza erabiltzeko arauak, horrela norberaren eta komunitatearen osasuna, sareetako segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuz eta babestuz.
HKK STEM KD KAKK	1, 2, 5 4, 6 2, 3 4	<b>3. Informazio zientifikoa interpretatzea eta transmititzea eta horri buruzko argudioak ematea.</b>	3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.	<b>B. Materia: Materia bizia eta ez-bizia.</b> – Osasuna eta gaixotasuna izaki bizidunetan – Osasun fisikoa, mentala eta soziala kontserbatzera bideratutako ohiturak (teknologia berrien erabilera arduratsua, ariketa fisiko...).
STEM KPSII HK KAKK	4, 5 4 1 2	<b>5. Zientzien erregelak eta arauak maneiatzea.</b>	5.2 Norberaren eta taldearen osasuna, ingurumenaren kontserbazio jasangarria.	<b>Geologia</b> – Harri eta mineral garrantzitsu batzuk eta/edo inguruneak identifikatzeko metodoak.
STEM KD KPSII HK EK	2, 5 4 1, 2 3, 4 1	<b>6. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, eta osasunarekin eta jasangarritasunarekin lotutako ekimenak sustatzea. arauak maneiatzea.</b>	6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, irizpide zientifikoak aplikatuz. 6.2 Biodibertsitatea babestearen, ingurumena zaintzearen, ingurune izaki bizidunak babestearen, garapen iraunkorraren eta bizi-kalitatearen garrantziaz argudiatzea. 6.3 Ingurune hurbilean ohitura jasangarriak proposatzea eta hartzea. 6.4 Ohitura osasungarriak eta arduratsuak proposatzea eta hartzea. 6.5 Ingurune paisaia eta ekosistemak interpretatzea, bertako elementuak aztertuz eta giza ekintza jakin batzuen ingurumen-inpaktuari buruz hausnartuz.	<b>C. Elkarrekintzak eta Energia</b> – Ingurumenari eta jasangarritasunari buruzko hipotesien prestaketa oinarritua. – Ekosistemen kontserbazioaren, biodibertsitatearen eta garapen iraunkorreko eredu bat ezartzearen garrantzia. – Klima-aldaketaren kausak eta horrek ekosistemetan dituen ondorioak. – Ohitura jasangarrien garrantzia (kontsumo arduratsua, hondakinen kudeaketa, ingurumenaren errespetatua...). – Ingurumenaren, gizakien eta beste izaki bizidun batzuen osasunaren arteko erlazioa: one health (osasun bakarra).


## BALORE ZIBIKOAK

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KD KPSII HK	2 1 1 1, 2, 3	<b>2. Ingurune analogiko eta digitaletan jardutea eta elkarreragitea, errespetuzko elkarrizketa baterako beharrezkoak diren arau eta balioekin bat etorritik, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta guztion onerako modu aktiboan konprometitua sustatzeko duten garrantziaren aitortzen oinarritutik abiatuz, arau eta balio zibiko eta etikoei buruz hausnartzeko, bizitza komunitarioa arautzeko eta hainbat testuingurutan modu eraginkorrean eta justifikatuan aplikatzeko.</b>	2.1 Ingurune analogiko eta digitaletan herritartasun aktiboa eta demokratikoa sustatzea, sormenezko prozedurak eta printzipio zibiko, etiko eta demokratiko esplizituak aplikatuz erabaki kolektiboak hartzean, ekintza koordinatuak planifikatzea eta arazoak konpontzea eskatzen duten talde-jardueretan errespetuz, elkarrizketa bidez eta modu eraikitzailean parte hartuta 2.2 Guztien ongirako konpromiso aktiboa sortzen laguntzea, ikasleengandik hurbil dauden eta gaurkotasuna duten gai etikoen inguruko jarrera aztertuz eta arrazoituz eta elkarrizketaren bidez jorratuz.	<b>A. Autoezagutza eta autonomia morala</b> – Ikerketa etikoa eta arazo konplexuen ebazpena. Planteamendu kritikoa eta filosofikoa. <b>B. Gizartea, justizia eta demokrazia</b> – Konpromiso zibikoa eta herritarren parte-hartzea. <b>C. Iraunkortasuna eta ingurumen-etika</b> – Planetaren mugak eta giza ekintzen azterna ekologikoa. Klima-larrialdia. Arazo ekosozialen inguruko hainbat planteamendu etiko, zientifiko eta politiko. – Bizi-ohitura iraunkorrak: baliabideen eta mugikortasunaren kudeaketa. Kontsumo arduratsua. Elikadura eta kontsumoa. Energia-eredufosila eta energia berriztagarri eta garbiak. – Gaur egungo erronka eta arazo ekosozialak tokiko ingurunean eta ingurune globalean. – Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunen eta planetaren errespetua, babesa eta zaintza. – Erantzukizun ekosozial indibiduala eta kolektiboa. Tokiko arazo ekosozialei eta arazo ekosozial globalei alternatibak.
STEM KPSII HK EK	5 2 1, 2, 3, 4 1	<b>3. Giza jardueren izaera interkonektatua, elkarren mendekoa eta ekomendekoa ulertzea, arazo ekosozial garrantzitsuak identifikatuz eta aztertuz, bizimodu jasangarriak lortzeko etikoki konprometitutako ohiturak eta jarrerak sustatzeko.</b>	3.1 Planetaren mugak eta gure bizitzaren eta ingurunearen arteko interkonexio, elkarren mendekotasun eta ekomendetasuneko harremanak ulertzea, Lurreko bizitzari eragiten dioten arazo ekosozial larrienen kausak eta ondorioak aztertuz. 3.2 Garapen iraunkorra lortzeko etikoki konprometitutako bizimoduak sustatzea, bere kabuz eta bere ingurunean baliabideen, hondakinen eta mugikortasunaren kudeaketa jasangarri, bidezko merkataritzan, kontsumo arduratsuan, natura ondarearen zaintzan, aniztasun etniko-kulturalarekiko errespetuan eta animalien zaintza eta babesean engaiatuz.	



## GEOGRAFIA ETA HISTORIA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 2, 3 1, 2 4 1, 2, 3 4, 5 3 3 3	<b>1. Gaur egun garrantzitsuak diren arazo geografiko, historiko eta sozialen inguruan ikertzea, argudiatzea eta hainbat formatuetan produktu propioak egitea, tokikotik globalera, informazioa bilatuz, aukeratuz, tratatuz eta antolatuz, eta iturri historikoak eta geografikoak erabiliz, ezagutzak eskuratzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko.</b>	1.1 Egungo eta iraganeko prozesu eta gertaera historiko, geografiko eta sozial esanguratsuei buruzko informazioa modu gidatuan bilatzea, hautatzea, antolatzea eta komunikatzea, hainbat euskarritan aurkeztuz eta zereginaren helburuak kontuan hartuz.	<b>A. Egungo munduaren erronkak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– 2.Kokapen espaziala. Espazio geografikoaren irakurketa eta irudikapena: mapak, orientazioa eta eskalak.</li> <li>– 9.Arrisku eta hondamendi klimatikoak: klima-aldaketak gaur egun, iraganean eta etorkizunean. Giza jardueren eragina. Hondamendi naturalen eta klima-aldaketaren ondorioen aurrean prebentzioa</li> <li>– 10.Natura-ondarearen oparotasuna eta balioa. Giza eragina ekosistemen aldaketan, iraganean eta gaur egun.Tokiko ingurunearen eta ingurune globalaren kontserbazioa eta hobekuntza</li> <li>– 12.Paisaia gizatiartua.</li> <li>– Pentsamendu kritikoa norberaren iritziak garatzeko abiapuntu gisa.</li> </ul>
KPSII HK EK	2 1, 2, 3, 4 1	<b>2. Paisaiaren elementuak eta horiek sistema konplexu natural eta antropikoetan —landakoak eta hirikoak— duten artikulazioa identifikatzea eta aztertzea, baita denboran izan duten eboluzioa ere, eraldaketen kausak interpretatuz eta ekosistemetan dagoen oreka-maila baloratuz, ekosistema horien kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera jasangarria sustatzeko.</b>	2.2 Historiaurretik Aro Modernora arte, baliabideak ustiatzearen ondorioz, gizakiok natura-guneak nola eraldatu ditugun aztertzea, baita horrek populazioaren eboluzioarekin duen lotura ere, espazioen iraunkortasun- eta oreka-maila baloratuz, eta jasangarritasunaren aldeko ekintzen beharra aintzat hartuz.	<b>C. Konpromiso zibikoa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– 3.Toki-ingurunean eta ingurune globalean gaur egun dauden erronken eta arazoaren aurrean interesa.</li> <li>– 4.Gizarte zibileraren kide izatea eta inplikatzeta. Komunitate-proiektuetan parte-hartzea.</li> <li>– 5.Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunen eta planetarenganako errespetua eta horien babesa eta zaintza.</li> <li>– 6.Natura-, historia-, arte- eta kultura-ondarearen zaintza eta babesa.</li> </ul>





## TEKNOLOGIAKO ETA DIGITALIZAZIOKO HASTAPENAK

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK	1	1. Erronka teknologiko errazei autonomiaz eta jarrera sortzailez heltzea, diziplinarteko ezagutzak aplikatuz eta modu antolatuan eta kooperatiboan lan eginez, haietarako irtenbideak eraginkortasunez diseinatzeko, planifikatzeko eta garatzeko.	1.2. Materialak eta tresnak hautatzea, planifikatzea eta antolatzea, baita planteatutako problema bati irtenbidea emateko behar diren zereginak ere, banaka edo taldean lan eginez, modu kooperatiboan eta gainerako parte-hartzaileekiko errespetuz.	<b>A. Problema ebazteko prozesua.</b> – Problema ebazteko prozesuak: estrategiak, teknikak eta faseak.  <b>E. Zentzu sozioemotionala.</b> – Talde-lana optimizatzeko teknika kooperatiboak. Gatazkak kudeatzeko jokabide enpatikoen eta estrategien erabilera.
STEM	1, 3			
KD	3			
KPSII	3, 5			
EK	1, 3			
KAKK	3, 4			



## HEZIKETA FISIKOA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
STEM	5	6. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorretan akzio-aukerak aurkitzea eta behar bezala eta segurtasunez aprobetxatzea, ikasleen ohituretan natura- eta hiri-ingurunean garatuko den aisia osasuntsu, jasangarri eta maila ekosozialean arduratsua sartzeko.	6.2 Ingurune naturalean (lurrekoak edo uretakoak) egiten diren kirol-jardueretan parte hartzea, inguruneaz modu jasangarrian gozatzuz, jarduera horiek sor dezaketen ingurumen-inpaktua minimizatuz eta haien aztarna ekologikoaz jabetuz.	<b>E multzoa. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Natura- eta hiri-inguruneetako jarduera fisikoak.</li> <li>– Ingurune naturalean egindako desplazamendu arrazoitua eta hausnartua, informazio eta erreferentziak hartuz (plano batean markatutako ibilbide bati jarraitzeko).</li> <li>– Ingurune naturaleko praktika fisikoetako eta kirol-praktiketako arriskua: segurtasun-neurriak ondorio larriak izan ditzaketen jardueretan.</li> <li>– Jarduera horietako berezko materiala eta ekipamendua, segurtasunekoa barne</li> <li>– Orientazioko oinarrizko tresnen eta tekniken erabilera.</li> </ul>
KPSII	1			
HK	4			
EK	1			
KAKK	1			



## Ikuspegi ekosoziala

## IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- \* Giza ekomendekotasuna barneratzea. Bizitzaren egituraren parte garena konturatzeko.
- \* Biosfera gurtu. Biodibertsitatearen eta ekosistemaren garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen delako ideiarekin ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentristatik ekozentristora pasatzea.
- \* Klima-aldaketa zer den, haren kausak, ondorioak eta konponbideak ezagutzeko.

## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- \* Izaki bizidun guztiak elkarri lotuta daudela onartzea.
- \* Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar dituela adieraztea.
- \* Biodibertsitatea babesteko ekintzak egitea/Oreka ekosistemikoen aldeko jarrerak erakustea.
- \* Natura gizakiek kontrola dezaketela edo kontrolatu behar dela dioen ideiarekin aurrean ikuspegi kritikoa adieraztea.
- \* Klima-aldaketa sistema sozio-ekonomikoarekin lotzea.
- \* Klima-aldaketarekin lotuta planteatzen diren arazoei aurre egiteko irtenbide indibidualak, komunitarioak eta sozialak diseinatzea.
- \* Klima-aldaketaren ondorio nagusiak eta haien eragin diferentziala zerrendatzea, gizarte- eta lurralde-faktoreen arabera.

## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- \* Ekomendekotasunaren kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren laguntzarik gabe.
- \* Natura zaintzearen garrantzia.
- \* Lurraren eskubideak. Lurra subjektu gisa, ez menderatu beharreko objektu gisa.
- \* Klima-aldaketaren kausak: erregai fosilak erretzea eta lurzorua erabilera aldatzea (batez ere nekazaritzako industria-ereduarekin lotuta). Berotegi-efektua handitzea, berotegi-efektuko gasen isurketagatik.
- \* Klima-aldaketaren ondorioak: muturreko fenomeno meteorologikoak (lehorteak, uholdeak, bero-boladak, etab.), suteak, izotza urtzea, itsas maila handitzea, lurzorua emankortasuna jaisteak, basoak galtzea, ozeanoetako azidotzea, etab. Klima-aldaketaren eraginen arteko erlazioa.



## IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- \* Baliabide eta hustubideetan Lur planetaren mugak ezagutzea.
- \* Arazoen sorburu izango diren krisi ekologiko eta sozialerako konponbideak baloratzea.

## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- \* Planeta mugatu batean hazkunderari eta kontsumoari mugak daudela sinetsita adieraztea.
- \* Gizarte- eta ingurumen-ingurunea hobetzearen aldeko jarrerak eta bizimoduak erakustea.
- \* Identitate bat eraikitzea, ez bakarrik indibiduala, baizik eta kolektiboa ere izango dena eta naturaren zati gisa ulertuko dena.

## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- \* Etengabeko hazkunderako ezintasuna. Mendebaldeko bizimoduaren aztarna ekologikoa.
- \* Krisi material eta energetikoei aurre egiteko banakako neurriak: kontsumoa, mugikortasuna, ondasunen konponketa eta abar murriztea. Neurri eraginkorragoak eta irismenaren balorazioa, ondasunen aztarna materialaren kalkulutik abiatuta.
- \* Garapenaren ordezeko ereduak eta proposamenak. Garapenaren ideien balorazio kritikoa.
- \* Identitatea eraikitzea, ez bakarrik banakako zerbait bezala, baita kolektiboa eta identitate ekozentrikoa ere (ekosistema baten zati bezala).

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentea da FUHEM.



Bigarren Hezkuntza. 1,2

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea / Ondoren 1-3

## Metodologia



## ESTRATEGIA

Arazoetan oinarritutako ikaskuntza  
Gogoetan oinarritutako ikaskuntza  
Gamifikazioa  
Ikaskuntza kooperatiboa

ESTRATEGIA  
EKOSOZIALAK

Ikuspegi sozioafektiboa  
Ekintzarako ikaskuntza  
Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa  
Ikaskuntza aktiboa  
Inklusioa  
Ikuspegi holistiko eta kritikoa



## TEKNIKAK

**OHIKOAK:**  
Digitalak  
Grafika eta ikonoak  
Web baliabideak  
Ikus-entzunezkoak  
Ikerkuntza taldeak  
Solosalidia  
Entzute kolektiboa.  
Azalpenak talde handietan

**EZOHIKOAK:**  
Beste batzuk: Ingurune naturala / Ekoetxea

